

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

3880

EBAZPENA, 2025eko irailaren 2koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, «Trenbidea bitan banatzeko eraikuntza-proiektua Deban, 72+509.074 eta 73+181.011 KPen artean» proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzen duena, eta titularrei dei egiten diena okupazioaren aurretiko aktak egiteko.

2024ko irailaren 5eko Ebazpenaren bidez, «Trenbidea bitan banatzeko eraikuntza-proiektua Deban, 72+509.074 eta 73+181.011 KPen artean» proiektua onetsi zen. Ebazpena 2024ko irailaren 27an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (189. zk.)

Azken bi hamarkadetan, inbertsio-ahalegin handia egin da trenbide-azpiegituraren ahalmena hobetzeko. Horretarako, trazadura hobetzeko jarduketak egin dira, trenbideak bikoiztuz, bitan banatuz eta ETSk kudeatzen duen zabalera metrikoko sareko geltokiak berrituz. Jarduketa horien bidez, besteak beste, salgaiak garraiatzeko trenak eta bidaiariak garraiatzeko trenen sarea gurtzatzeko eremuak edo bitan banatzeko eremuak ezarri dira, era horretan inbertsioak hobetzea lortzen baita salgaien trafikoa zabalera metrikoko sareetan bultzatzeko, betiere egokiro bat etorrira eskaera handiko eremuetan bidaiarien trafikoaren maiztasuna areagotzeko sarearen ahalmena handitzeko estrategiarekin.

«Trenbidea bitan banatzeko eraikuntza-proiektua Deban, 72+509.074 eta 73+181.011 KPen artean» proiektuan definitzen den jarduketa lagungarria izango da gaur egun Bilbo-Donostia linean gauez egin behar diren salgai-trenen joan-etorriak egunez egin ahal izateko bidaiarien trafikoaren haraneko orduan. Horren ondorioz, ez da eraginik ez interferentziarik gertatuko ETSk gauez egiten dituen mantentze-lanetan, eta, gainera, salgaiak garraiatzeko trenen gaueko ohiko trafikoa saihestuko da biztanlegune handietan.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazio xehatua biltzen du (desjabetzeen eranskinean jaso dira lurzatiaren zerrenda eta planoak).

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2025eko apirilaren 15eko Ebazpenaren bidez, erabaki zen proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedurari hasiera ematea eta desjabetzeen eranskinaren zerrenda jendaurrean jartzea. Interesdunei jakinarazi zitzairen, eta 2025eko maiatzaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta «El Diario Vasco» eta «Noticias de Gipuzkoa» egunkarietan argitaratu zen. Ondasun eta eskubideen zerrenda hori Debako udaletxeko iragarki-taulan ere jarri zen.

Izapide honetan alegazio-idazki bakarra aurkeztu da; Zerbitzu Teknikoetara bidali da, neurriak hartzeko eta kontuan hartzeko, akatsak zuzendu behar badira ere. Banakako erantzuna bidali zaio.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, ukitutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egin da.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 11.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, trenbide-lineen proiektuak, horien tarteak edo trenbide-azpiegiturako beste elementu batzuk onesteak edo lehendik daudenak aldatzeak lursail berriak erabiltzea eskatzen badu, horietan identifikatutako eraginpeko ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako, onura publikoko edo gizarte-intereseko deklarazioa egingo da, eta okupatu beharrekoa eta presakoa dela deklaratu da. Legezko adierazpen horrek Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako prozedurara jotzeko ahalmena ematen dio administrazioari; hartara, lurra okupatu edo ukitutako ondasunak eskuratuko ditu, ondasun edo eskubide horiek deskribatzen dituzten aktak egin ondoren, titularrak identifikatuz eta baloraziorako beharrezkoak diren datuak jasoz, eta, aldez aurretik, okupazioaren aurreko gordailu gisa perituek zehaztutako zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz, eta, hala badagokio, okupatzeko presak eragindako kalteen zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz.

Ondorioz, egindakoa ikusita, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56. artikuluan eta horrekin bat datozen eta oro har aplikatu beharrekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Trenbidea bitan banatzeko eraikuntza-proiektua Deban, 72+509.074 eta 73+181.011 KPen artean» proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta hura okupatu beharra deklaratzeko, Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan adierazitako ondorioekin.

Bigarrena.– Zerrenda horretan agertzen diren jabeen deialdeak, Debako Udalera joan ondoren, ukitutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko, zerrenda horretan adierazitako egun eta orduetan, eta, hala badagokio, horiek formalki okupatzeko; hala ere, beharrezkoa izanez gero, aukera egongo da lursailletara bertaratzeko, interesdunek hala eskatuta.

Egintza horretara interesdunek berek joan beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoei; haien titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte (eskritura publikoak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak edo informazio-oharrak, etab.), bai eta beren eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein agiri ere. Egoki iritzi gero, beren perituekin eta notario batekin batera aurkeztu ahal izango dira, baina hori haien kontura izango da.

Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte okupazioaren aurreko akta egiten den egunera arte, akatsik egonez gero horiek zuzentzeko. Horretarako, Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara jo beharko dute, idatziz (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta beronen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsioa jartzeko idazkia organo honi edo Azpiegitura eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeari zuzendu behar zaio.

2025eko irailaren 16a, asteartea

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabete epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Nolanahi ere, aurretik aukera izango dute errekerimendua egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 2a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2025eko irailaren 16a, asteartea

ERANSKINA

DEBAKO UDALERRIAN

Finka-zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Debako Udalaren 2025-09-30eko deialdia
			Erabateko jabaria	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
002	04-038	Gipuzkoako Foru Aldundia	1198	1	922	09:30
003	04-028	Gipuzkoako Foru Aldundia	707	0	0	09:30
004	04-003	Gipuzkoako Foru Aldundia	2861	0	0	09:30
005	04-035	Gipuzkoako Foru Aldundia	1206	0	0	09:30
006	04-040	Gipuzkoako Foru Aldundia	1218	0	0	09:30
008	03-021	Gipuzkoako Foru Aldundia	0	229	852	09:30
009	03-006	Francisco M. Garate Udabe eta Unai Garate Santos	0	26	22	10:00
001	-	Debako Udala	17	13	141	10:30
007	-	Euskal Trenbide Sarea	14988	15	0	11:00